

6. TOKI GARAPENA	6. DESARROLLO LOCAL
<p>6.1. ESKUALDAKETAK BERMATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, ARRASATEKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU SEKTOREETAKO NEGOZIOENTZAKO</p>	<p>6.1. CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA GARANTIZAR LAS TRANSMISIONES EN NEGOCIOS DE LOS SECTORES DE COMERCIO, HOSTELERÍA Y SERVICIOS DE ARRASATE</p>
<p>1. Xedea</p>	<p>1. Objeto</p>
<p>Deialdi honen xedea da erregulatzea Arrasateko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza sektoreak biziberritzeko eta martxan dauden aktibitateak mantentzeko dirulaguntzak.</p>	<p>Es objeto de la presente convocatoria la regulación de los requisitos de concesión de subvenciones al comercio, servicios y hostelería de Arrasate para la revitalización del sector y mantenimiento de las actividades.</p>
<p>Jarduerak mantentzeko xedeaz gain, ekidin nahi dira kaleetako lokal hutsak.</p>	<p>Además de mantener las actividades, se quieren evitar los locales vacíos.</p>
<p>2. Onuradunak, eta haien ezaugarriak eta baldintzak</p>	<p>2. Personas beneficiarias y sus características y requisitos</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Onuraduna izango da negozioaren transmisioa egiteko prozesuan dagoen titularra nahiz negozioarekin jarraituko duen titular berria (ekintzailea). 	<ul style="list-style-type: none"> - La persona beneficiaria será tanto el o la titular en el proceso de transmisión del negocio como el nuevo o la nueva titular que seguirá con el negocio (persona emprendedora).
<ul style="list-style-type: none"> - Jarduera lizentziaren titulartasun eskualdatzea egin beharko da dirulaguntzaren eskaera egiten den urtean bertan edo aurrekoan. - Jarduera eskualdatzen duenarentzat, aholkularitza gastuak finantzatzeko dirulaguntza eskaeren kasuan, nahikoa izango da eskualdatze prozesua hasita dagoela justifikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - La transmisión de la titularidad de la licencia actividad deberá realizarse en el mismo año en el que se realiza la solicitud de la subvención o el anterior. - Para la persona transmitente de la actividad, en el caso de solicitar la subvención para financiar gastos de asesoramiento, bastará con justificar el inicio del proceso de transmisión.
<ul style="list-style-type: none"> - Merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu jarduera ekonomiko izatea, eraikinaren etxabeko lokaletan kokatzen direnak eta katastroan merkataritza lokaleko izaera dutenak, baldin eta lehen aldiz altan ematen badira udalerriko jarduera ekonomikoen matrikulan, 1/1993 FORU DEKRETU ARAU EMAILEAn, apirilaren 20koa, Ekonomia Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoa, jasotzen den 1. Eranskinen Lehen Sekzioko 6. saileko edo 9. saileko epigrafetako batean edo 8. saileko 83 edo 84 epigrafean, edo jarduera profesionaletan, bigarren sekzioko 5. saileko edo 8. saileko epigrafetakoak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Se trata de actividades económicas comerciales, de hostelería o servicios ubicadas en los locales de la planta baja del edificio y que tengan en el catastro carácter de locales comerciales, siempre que se den de alta por primera vez en la matrícula de las actividades económicas del municipio, en alguno de los epígrafes de la Sección Primera, apartado 9º o apartado 6º, del Anexo I recogido en el DECRETO FORAL NORMATIVO 1/1993, de 20 de abril, por el que se aprueba el texto refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, o en el epígrafe 83 o 84 de la Sección 8ª, o en actividades profesionales, de los epígrafes de la sección segunda, apartado 5º o apartado 8º.
<ul style="list-style-type: none"> - Establezimendua Arrasaten egotea. 	<ul style="list-style-type: none"> - El establecimiento deberá estar ubicado en el municipio de Arrasate.

<ul style="list-style-type: none"> - Arrasateko Udalarekin zorrik ez edukitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - No tener deudas con el Ayuntamiento de Arrasate.
<ul style="list-style-type: none"> - Ez dute dirulaguntza hau jasotzeko eskubiderik izango, enpresa igorlearen eta jasotzailearen titularrak berdinak badira, osorik edo zati batean. 	<ul style="list-style-type: none"> - No tendrán derecho a percibir esta subvención, las empresas en las que sus titulares, transmisores y receptores, sean los mismos, en su totalidad o en parte.
<ul style="list-style-type: none"> - Negozio bera ezingo da diruz lagundu, baldin eta 10 urte igaro ez badira aurreko eskualdaketa egin zenetik. Denbora tarte horretan egoera bereziren bat emango balitz (aurreko titularraren heriotza, istripua, jubilazioa...), kasuan kasu aztertuko da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Un mismo negocio no podrá ser subvencionado si no han transcurrido 10 años desde la transmisión anterior. Si en el transcurso de ese período se diera alguna circunstancia especial (fallecimiento del anterior titular, accidente, jubilación...), se estudiará en cada caso.
<ul style="list-style-type: none"> - Otsailaren 18ko 4/2005 Legean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, jasotakoak kontuan hartuta, honako egoera batean ez egotea: 	<ul style="list-style-type: none"> - No encontrarse en alguna de las siguientes situaciones recogidas en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres:
<ul style="list-style-type: none"> - Kideak aukeratzeko prozesuan sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten enpresak izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Que sean empresas que discriminen por razón de sexo en el proceso de selección de sus miembros o socios/as.
<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten jarduerak antolatzen dituzten enpresak izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Que sean empresas que organicen actividades que no permitan o dificulten la participación de las mujeres en condiciones de igualdad con los hombres.
<ul style="list-style-type: none"> - Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak izatea, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran 	<ul style="list-style-type: none"> - Que sean personas físicas o jurídicas que han sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, durante el tiempo de duración de la sanción o sanciones.
<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza normalkuntzari dagokionez, onuradunak konpromisoa hartzen du jardueraren inguruko mezu idatziak eta jende aurreko ekitaldiak euskaraz edo ele bitan egiteko, euskarari lehentasuna emanaz. Mezuen hizkuntza zuzentasuna bermatzeko, udaleko Euskara sailaren aholkularitza zerbitzua onuradunaren esku jarriko da. 	<ul style="list-style-type: none"> - En lo que respecta a la normalización lingüística, la persona beneficiaria se compromete a realizar los mensajes escritos y los actos públicos de la actividad en euskera o en ambas lenguas, dando prioridad al euskera. Para garantizar la corrección lingüística de los mensajes, se pondrá a disposición de la persona beneficiaria el servicio de asesoramiento del departamento de Euskera del Ayuntamiento.
<p>3. Salbuetsitako jarduerak</p>	<p>3. Actividades exentas</p>
<p>Dirulaguntzatik at geldituko dira, 2. puntuari aipatutako epigrafeetako batean altan egonda ere, azken lau urteetako ekitaldi batean 1.000.000 eurotik gorako fakturazioa izan duten jarduerak, edo fakturazio kopuru hori izan duten enpresen taldekoak direnak. Halaber, kanpo geldituko dira farmaziak, estancoak, loteria establezimenduak, frankizia, multinazional, enpresa taldeak eta antzekoak, eta, oro har,</p>	<p>Quedarán excluidas de la subvención aquellas actividades que, encontrándose de alta en alguno de los epígrafes mencionados, hayan tenido una facturación superior a 1.000.000 de euros en un ejercicio de los cuatro últimos años, o pertenezcan al grupo de empresas que hayan tenido ese volumen de facturación. Asimismo, quedarán excluidas las farmacias, estancos, establecimientos de lotería, franquicias, multinacionales, grupos empresariales y</p>

ohiko egoitza fiskala udalerritik kanpo daukatenak.	similares y, en general, aquellas que tengan su residencia fiscal habitual fuera del municipio.
4. Noiz kontsideratuko da jardueraren eskualdaketa egin dagoela	4. Cuándo se considerará realizada transmisión de la actividad
Jarduera lizentziaren titulartasun aldaketa ontzat ematen denean udalean.	Cuando se apruebe el cambio de titularidad de la licencia de actividad en el ayuntamiento.
Aurreko titularraren Jarduera Ekonomikoen Zerga bajaran emanda dagoenean eta titular berriaren Jarduera Ekonomikoen Zerga altan emanda dagoenean.	Cuando el o la anterior titular esté dada de baja en el Impuesto de Actividades Económicas y el o la nueva titular esté dada de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
Jarduerak ez du etenik edukiko, establezimendua ez da itxiko (betiere arrazoi tekniko edo administratibo zehatz bategatik ez bada).	No se suspenderá la actividad, no se cerrará el establecimiento (salvo por una determinada razón técnica o administrativa).
Eskualdaketa egiteko ahalegina egin ondoren, establezimendua itxi behar izan bada, baina urte bete baino gutxiago pasatu bada jarduera bajaran izan denetik eskualdaketa berria egin arte, kontsideratuko da eskualdaketa epean egin dela eta itxieraren arrazoi koiunturalagatik izan dela. Eskualdaketa egiteko ahalegina frogatu beharko da.	Si el establecimiento hubiera tenido que cerrarse con posterioridad al intento de transmisión, pero si en el plazo de un año después de la baja de la actividad se hubiera realizado una nueva transmisión, se entenderá que ésta se ha producido en plazo por causa coyuntural. Deberá acreditarse el esfuerzo para realizar la transmisión.
5. Diruz lagunduko diren gastuak	5. Gastos subvencionables
Finantzarriak izango dira hurrengo gastuak:	Serán financiables los siguientes gastos:
Jarduera eskualdatzen duenarentzat:	Para quien realiza la transmisión de la actividad:
Negozioa aztertu, baloratu eta eskualdatzeko beharrezko aholkularitza gastu guztiak (kontabilitatekoa, zergakoa, lanekoa, legea ...).	Todos los gastos de asesoramiento (contable, fiscal, laboral, legal...) necesarios para el análisis, valoración y transmisión del negocio.
Jakintzaren transmisioa: diruz lagunduko da negozioa aurrera eramateko behar den informazio guztia transmititzeko eta trebatzeko ahalegina. Diruz lagunduko da etorkizuneko ekintzailea izango denaren kontratua eta gizarte segurantzaren kostua eskualdatuko den jardueraren ziklo amaieran.	Transmisión del conocimiento: Se subvencionará el esfuerzo de transmisión y capacitación de toda la información necesaria para llevar adelante el negocio. Se subvencionará el contrato y el coste de la seguridad social de la futura persona emprendedora en el tramo final de la actividad a transmitir.
Eskualdaketa jasotzen duenarentzat:	Para quien recibe la transmisión:
Lokalaren alokairua: Lokala alokairuan hartu bada, kontratuak gutxienez 12 hileko iraupena izango du.	Alquiler del local: Si el local ha sido arrendado, el contrato tendrá una duración mínima de 12 meses.
Lokala alokatzen duen pertsonarekin ezkontza ahaidetasuneko edo odol ahaidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna badu, laguntza emateko, kasu bakoitza banan-bana aztertuko da, eta, nolahi ere, negozioa transferitzeko arrazoi justifikatua egon beharko da.	En el caso de que exista un vínculo de parentesco de primer o segundo grado de afinidad o consanguinidad con la persona arrendadora del local, para la concesión de la ayuda se analizará individualmente cada caso, aun así, deberá existir una causa justificada para la transferencia del negocio.
BEZa ez da diruz lagunduko.	El IVA no será gasto subvencionable.

6. Dirulaguntzaren zenbatekoa	6. Importe de la subvención
Jarduera eskualdatzen duenarentzat:	Para quien realiza la transmisión:
<p>Aholkularitza zerbitzuak:</p> <p>Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen % 90ekoa izango da, gehienez 3.000 euro arte. Hala ere, aholkularitza enpresa kontratatzen bada errelebo protokoloa egiten laguntzeko, baina azkenean ez bada gauzatzen, laguntza izango da gastuen % 90 eta gehienez 1.500 euro.</p> <p>Titular bakoitzak, gehienez dirulaguntza bakar bat eskatu ahal izango du.</p>	<p>Servicios de asesoramiento:</p> <p>La cuantía de la subvención será del 90% de los gastos subvencionables hasta un máximo de 3.000 euros. No obstante, en el caso de que se contrate una empresa consultora para colaborar en la elaboración del protocolo de relevo, pero no se materialice finalmente, la ayuda será del 90% de los gastos y hasta un máximo de 1.500 euros.</p> <p>Cada titular podrá realizar una sola solicitud de subvención.</p>
<p>Jakintzaren transmisioa:</p> <p>Dirulaguntzaren zenbatekoa izango da ekintzailea izango denari egiten zaion kontratuaren kostua, hilabete batez eta gehienez lanbide arteko gutxieneko soldata, gehi Gizarte Segurantzza (oinarri bezala hartuko da azken nomina arrunta).</p> <p>Gehienez kontratu bakarra finantzatuko da.</p>	<p>Transmisión del conocimiento:</p> <p>La cuantía de la subvención será el coste del contrato que se realice al futuro emprendedor, por un periodo de un mes y un máximo de salario mínimo interprofesional, más la Seguridad Social (se tomará como base la última nómina ordinaria).</p> <p>Se financiará como máximo un contrato.</p>
Eskualdaketa jasotzen duenarentzat:	Quién recibe la transmisión de la actividad:
<p>Alokairua:</p> <p>1. Urtea: alokairuaren % 75, gehienez 450 euro/hileko (12 hilabete).</p> <p>2. Urtea: alokairuaren % 50, gehienez 450 euro/hileko (12 hilabete).</p>	<p>Alquiler:</p> <p>1. Año: 75% del alquiler, como máximo 450 euros/mes (12 meses).</p> <p>2. Año: 50% del alquiler, como máximo 450 euros/mes (12 meses).</p>
Dirulaguntza aplikatuko da eskualdaketa egin, jarduera lizentziaren titulartasun aldaketa ontzat eman eta jarduerarekin martxan hasita, lehengo alokairutik aurrera.	Se aplicará la subvención a partir del primer alquiler, una vez de haber realizado la transmisión y el cambio de titularidad de la licencia de actividad y haber comenzado con la nueva actividad.
Titular berriak bi negozio edo gehiago hartuko balitu transmisioan, bigarrenaren alokairuak aurreko puntuan adierazten diren dirulaguntza kopuruen % 50 izango luke.	En caso de que el nuevo o nueva titular asuma en transmisión dos o más negocios, el alquiler del segundo tendría una cuantía equivalente al 50% de las subvenciones señaladas en el punto anterior.
Lokalak osagarriak izango balira, adibidez denda edo taberna, alde batetik, eta biltegia, bestetik, alokairuaren zenbatekoa batu egingo litzateke.	Si los locales fueran complementarios, por ejemplo, una tienda o bar, por un lado, y el almacén, por el otro, el importe del alquiler se sumaría.
7. Aurkeztu beharreko dokumentazioa	7. Documentación a presentar
1. Eskaera orria (beteko da eskaera egitean)	1. Hoja de solicitud (se cumplimentará al realizar la solicitud)
<p>a. Jardueraren eta titularraren datuak</p> <p>b. Adieraziko da transmisio prozesua zein puntutan dagoen</p>	<p>a. Datos de la actividad y titularidad</p> <p>b. Se indicará el punto en el que se encuentra el proceso de transmisión</p>

c. Helburu berdinarekin beste dirulaguntzarik jaso den	c. Obtención de otras subvenciones con el mismo fin
2. Titularraren NAN edo IFZ	2. DNI o NIF del o de la titular
3. Enpresak Jarduera Ekonomikoen Zergan alta egotearen ziurtagiria.	3. Certificado de alta de la empresa en el Impuesto de Actividades Económicas.
4. Zerga betebeharretan eta gizarte segurantzako ordainketetan egunean izatearen ziurtagiria (eskatzaileak eskubidea dauka dokumentu hauek ez aurkezteko; horretarako baimena emango dio Arrasateko Udalari NISAE plataformaren bitartez dokumentu hauek egiaztatzeko).	4. Documentos acreditativos de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias y de la seguridad social (el o la solicitante se reserva el derecho de no presentar estos documentos, autorizando al Ayuntamiento de Arrasate a verificarlos a través de la plataforma NISAE).
5. Beste agiri gehigarri batzuk, Arrasateko Udalak beharrezko iritzi gero eskatzea.	5. Otra documentación adicional que el Ayuntamiento de Arrasate considere necesaria solicitar.
6. Dirulaguntza eskaerak udalaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztuko dira.	6. Las solicitudes de subvención se presentarán a través de la sede electrónica del ayuntamiento.
Jarduera eskualdatzen duenak:	Quién realiza la transmisión:
1. Eskualdatze planaren azalpen agiria: zer negozio den (deskripzio labur bat), non dagoen, noiztik ari den martxan, lokala jabetzan duen, zer azalera duen lokalak, zenbateko plantilla duen eskualdatzen den enpresak, noiz egingo den eskualdaketa, zergatik eskualdatzen den, zer baldintzatan, nork hartuko duen, ...	1. Documento explicativo del plan de transmisión: el tipo negocio (una breve descripción), el lugar en el que está ubicado, el tiempo que lleva funcionando, si es un local en propiedad, la superficie del local, el número de empleados de la empresa que se transmite, la fecha en que se realiza la transmisión, las razones de la transmisión, las condiciones, la persona que va a ocuparlo, ...
2. Transmisioa antolatu eta prestatzeko izandako gastuen fakturak eta ordainagiriak. Edo aurrekontuak, dirulaguntza eskatzen bada gastua gauzatu aurretik.	2. Facturas y justificantes de pago de los gastos realizados en la organización y preparación de la transmisión. O los presupuestos, en el caso de que se solicite la subvención con anterioridad a la ejecución del gasto.
3. Jakintzaren transmisioa: kontratuaren kopia eta ordainketen ziurtagiriak, eta gizarte segurantzako ordainketa agiria.	3. Transmisión del conocimiento: la copia del contrato y los certificados de los pagos, y el documento de pago de la seguridad social.
Jarduera jasotzen duenak:	Quien recibe la transmisión de la actividad:
1. Proiektuaren laburpen bat, negozioaz jabetzeko arrazoiak, egindako azterketak, jardueraren plangintza...	1. Un resumen del proyecto, las razones de hacerse con el negocio, los estudios elaborados, la planificación de la actividad...
2. Alokairua: Lokaren jabearekin egindako kontratuaren kopia, eta alokairuaren fakturak eta ordainagiriak.	2. Alquiler: Copia del contrato realizado con el o la propietaria del local, y facturas y recibos del alquiler.
8. Eskaerak aurkezteko epea	8. Plazo de presentación de solicitudes
Eskaerak aurkezteko epea irekita egongo da deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN	El plazo de presentación de solicitudes permanecerá abierto desde el día siguiente de la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN

argitaratu eta ondorengo egunetik aurrera, urte horretako azaroaren 30a arte.	OFICIAL de Gipuzkoa, hasta el 30 de noviembre de ese mismo año.
9. Justifikazioa	9. Justificación
Jarduera eskualdatzen duenak:	Quién realiza la transmisión:
Justifikazioa egingo du dirulaguntza eskaerarekin batera.	Realizará la justificación junto con la solicitud de subvención.
Aholkularitza zerbitzuak: eskaera egingo da eskualdatze prozesua hasita eta gastua egina dagoenean; justifikazioarekin batera. Eskaera egin daiteke transmisio prozesua bukatuta egon aurretik, edo gehienez 6 hilabete transmisioa gauzatu ondoren.	Servicios de asesoramiento: la solicitud se realizará una vez iniciado el proceso de transmisión y haber realizado el gasto; junto con la justificación. Se podrá tramitar la solicitud antes de terminar el proceso de transmisión y como máximo 6 meses después de realizarla.
Jarduera jasotzen duenak:	Quien recibe la transmisión de la actividad:
Lokalaren alokairuaren gastuak aurkeztuko ditu hiru hilean behin, aurreko hiruhileko gastuak justifikatzeko. Dirulaguntza egokitzen den lehenengo urtean justifikatuko dira abendura arteko faktura guztiak, nahiz eta azken hilabeteek ez bete hiruhileko epealdia (hurrengo urteetako justifikazioak hiruhileko naturaletan egin daitezten).	Se presentará trimestralmente los gastos del alquiler del local para la justificación de los gastos del trimestre anterior. El primer año se justificarán todas las facturas hasta diciembre, aunque los últimos meses no completen el período de tres meses (para que las justificaciones de los años posteriores se realicen en trimestres naturales).
Hiru hilean behin aurkeztuko da zerga betebeharreran eta gizarte segurantzako ordainketetan egunean izatearen ziurtagiria (eskatzaileak eskubidea dauka dokumentu hauek ez aurkezteko; horretarako baimena emango dio Arrasateko Udalarari NISAE plataformaren bitartez dokumentu hauek egiaztatzeko).	Trimestralmente se presentarán los documentos acreditativos de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias y de la seguridad social (el o la solicitante se reserva el derecho de no presentar estos documentos, autorizando al Ayuntamiento de Arrasate a verificarlos a través de la plataforma NISAE).
Dirulaguntza gehienez 24 hilabetez jaso ahal izango da eta dirulaguntzaren aitortza bi ekitaldirako bakarrik egingo da. Beraz, bi ekitaldi horietan ez badira 24 hilabeteak bete, hurrengo urteko deialdian eskatuko ahal izango da dirulaguntza berri bat gelditzen diren hilabeteetarako.	La subvención podrá ser de 24 meses máximo y el reconocimiento de la subvención se realizará para dos ejercicios. Por lo tanto, si en ambos ejercicios no se completaran los 24 meses, se podrá solicitar una nueva subvención correspondiente a los meses restantes en la convocatoria del año siguiente.
10. Administrazio atala, izapidetzeaz arduratzen dena	10. Unidad administrativa encargada de la tramitación
Eskaerak izapidetuko ditu Toki Garapeneko administrazio unitateak.	Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Desarrollo Local.
11. Programaren diru eskuragarritasuna	11. Disponibilidad económica del programa
Programa hau finantzatuko da Udal Aurrekontuko 1.0700.471.430.00.01 "Merkataritza, Zerbitzuak eta turismo sektorean eskualdaketa dirulaguntzak" partidatik. Partida horren zuzkidura 50.000 eurokoa izango da.	El presente programa se financiará a través de la partida 1.0700.471.430.00.01 "Merkataritza, zerbitzuak eta turismo sektorean eskualdaketa dirulaguntzak" del presupuesto municipal. La dotación de dicha partida será de 50.000 euros.
12. Eskaerak aztertzea eta ebaztea	12. Estudio y resolución de las solicitudes

Programa honen espedienteak tramitatzeaz Merkataritzako administrazio unitatea arduratuko da.	La unidad administrativa de Comercio se encargará de la tramitación de los expedientes de este programa.
Eskaerak aurkeztutako ordenan aztertu eta erabakiko ditu udalak, programaren kreditua agortu arte.	El Ayuntamiento analizará y resolverá las solicitudes por orden de presentación hasta agotarse el crédito del programa.
Eskaerak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat izanez gero edo osatu barik egonez gero, interesdunek 10 eguneko epea izango dute antzemandako akatsak zuzentzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.	En caso de que la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún defecto o sea incompleta, las personas interesadas dispondrán de un plazo de 10 días, contados a partir del siguiente al de la notificación del requerimiento efectuado por el Ayuntamiento, para subsanar los defectos detectados.
Horiek zuzendu barik, emandako epea igaroz gero, udalak ez du onartuko dirulaguntza eskaera, eta beste tramiterik egin barik arxibatu egingo du espedientea.	Transcurrido el plazo concedido sin la corrección de estos, el Ayuntamiento no admitirá la solicitud de subvención y sin ningún otro trámite archivará el expediente.
13. Ordaintzeko modua	13. Forma de pago
Udalak laguntzak ordainduko ditu eskaerak jaso eta ebatzi ahala.	El Ayuntamiento abonará las ayudas a medida que se vayan recibiendo y resolviendo las solicitudes.
Aholkularitza gastuak: eskualdaketa eginda badago, behin justifikatu eta ebatzi ostean ordainduko dira. Eskualdaketa gauzatu barik badago, gastuaren %90 ordainduko da, gehienez 1.500 euro, gainontzekoa utziko da transmisioa egin ondoren ordaintzeko, behin justifikazioa aurkeztu eta ebatzita.	Gastos de asesoramiento: en el caso de que la transmisión haya sido realizada, se abonarán una vez justificada y resuelta la misma. En caso de no efectuarse la transmisión, se abonará el 90% del gasto, con un máximo de 1.500 euros, quedando pendiente el pago del resto una vez efectuada la transmisión, previa presentación y resolución de la justificación.
Jakintza transmioko gastuak: ordainduko dira transmisioa egin, gastuaren justifikazioa aurkeztu eta ebazpena egin eta gero. Ordainduko dira, betiere jarduerak martxan jarraitzen badu.	Gastos de transmisión del conocimiento: se abonarán tras efectuarse la transmisión, presentarse la justificación del gasto y tras su resolución. Se abonarán siempre y cuando la actividad continúe en funcionamiento.
Lokalaren alokairua: ordainduko dira 3 hilabeteen behin, gastua egin ostean, justifikazioarekin batera. Ordainduko dira, betiere jarduerak martxan jarraitzen badu	Alquiler del local: Se abonarán trimestralmente, tras realizarse el gasto, junto con la justificación del gasto. Se abonarán siempre y cuando la actividad continúe en funcionamiento.
14. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin	14. Compatibilidad con otras subvenciones
Programa honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira beste laguntzekin, baita kontzeptu beragatik beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotzen direnean ere, betiere ez bada gertatzen gain finantzaketarik; izan ere, kasu horretan, programa honen bidez emandako	Las ayudas previstas en el presente programa serán compatibles con otras que por el mismo concepto pudieran percibirse de otras entidades públicas o privadas, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación, en cuyo caso la ayuda

<p>laguntza gutxituko da soberakinari dagokion zenbatekoan.</p>	<p>concedida en virtud de este programa se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso.</p>
<p>Bestalde, dirulaguntza-lerro hau Arrasateko Udalaren beste programa batzuekin bateragarria izateari dagokionez, ohartarazi behar da programa honen bidez eskatzen diren alokairu-gastuak ezin izango direla finantzatu aldi berean "Arrasateko enpresentzako laguntza, sortu berriak – negozioen eskualdatzea – jardueraren dibertsifikazioa" programaren bidez. Kasu horietan, lokalaren alokairu-gastu horiek finantzatzeari dagokionez, beharrezkoa izango da bi laguntza-ildoetako bat aukeratzea.</p>	<p>Por otro lado, en cuanto a la compatibilidad de esta línea de subvención con otros programas del Ayuntamiento de Arrasate, señalar que los gastos de alquiler cuya financiación se solicite a través de este programa no se podrán financiar a su vez a través del programa de "Ayudas para empresas de Arrasate, nueva creación-traspasos de negocio – diversificación de actividad", siendo necesario en dichos casos, en lo tocante a la financiación de dichos gastos de alquiler de local, optar por una de las dos líneas de ayuda.</p>
<p>Beste dirulaguntza batzuk eskatu edo lortu badira, justifikazio orriarekin batera aurkeztuko dira. Ezingo da egon gain finantzaziorik.</p>	<p>En el caso de que se hayan solicitado y/o obtenido otras subvenciones, éstas se presentarán junto con la hoja justificativa. No podrá haber sobrefinanciación.</p>
<p>15. Klausula gehigarria</p>	<p>15. Cláusula adicional</p>
<p>Deialdi hauetan aurreikusita ez dauden gaietan, hauek aplikatuko dira: Arrasateko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantza, Arrasateko Udalaren urteroko norgehiagoka araubideko dirulaguntzen programen deialdiaren oinarri orokorrak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden arauak, gai honi aplikatu dakizkiokeenak.</p>	<p>En lo no previsto en esta convocatoria, serán de aplicación: Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate, las bases generales de la convocatoria de los programas de concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Ayuntamiento de Arrasate, la Ley General 38/2003 de subvenciones y la normativa vigente aplicable a esta materia, de cada año.</p>